

BALDINTZA OROKORRAK

A. PGL ETA/EDO ZERBITZUEN HORNIDURAN EGON OHI DIREN BALDINTZAK

I. IRISMENA

Baldintza orokor hauek petrolio-gas likidotuaren (aurrerantzean "PGL") hornidurari aplikatuko dizkio NED Suministro GLP, SAUK (aurrerantzean "Nortegas"), bezeroaren amaierako kontsumorako, eta kasua bada, "Nortegas A Punto" eta/edo "Nortegas A Punto Solar" zerbitzuei. Hori guztia, baldintza zehatzak eta baldintza bereziak aintzat hartuta, baldintza guztien artean "kontratua" osatzen dutelarik.

Nortegasek bezeroari idatziz eman beharko dio baldintza orokorretan izandako aldaketa orenen berri, bezeroak bere desadostasuna idatziz adieraz dezan 20 egun naturaleko epean. Hala izanez gero, kontratua automatikoki baliogabetu dela ulertuko da 5 egun naturaleko epean eta data horretatik aurrera, hornidura etengo da. Aldaketak tazituki onartu direla ulertuko da, bezeroari jakinarazi eta 20 egun naturaleko epean hark idatziz erantzunik eman ez badu, jakinarazi zaion aldaketa errefusatu.

Gasa hartzen duten instalazioen funtzionamendua eta mantentze-lana zein zerbitzu teknikoaren eskaintza ez dira inolaz ere kontratu honen parte izango eta beraz, **Nortegas**ek bezeroarekin duen harreman-esparrutik kanpo geratuko dira berariaz.

Nortegasek bezeroarekin duen kontratuzko harremana baldintza zehatzetan eta baldintza orokorretan (ohikoak eta bereziak) bildutako akordioetan oinarrituko da beren-beregi. Baldintza horiek guztiak dokumentu honetan bilduta daude eta aurreko akordio edo itun oro ordezkatzen du, idatzizkoa zein ahozkoa. Era berean, une bakoitzean indarrean dagoen legerian ere oinarrituko da aipatutako kontratuzko harremana.

2. INSTALAZIO HARTZAILEAK

Bezeroaren betebeharrak izango da -bakarka eta kasua bada, jabeen erkidegoko kide gisa- erabiltzaile bati edo gehiagori PGL banatzeko instalazio hartzaileek erregelamenduz ezarritako arau teknikoak eta segurtasun-arauak betetzen dituztela bermatzea. Betebehar hori saihestezina eta iraunkorra izango da, instalazio horiek **Nortegas**enak diren instalazioetara konektatuta dauden bitartean. Modu berean jardungo da gas-aparatuen eta ebakuazio-hodien kasuan ere.

Instalazio horiek eskakizun tekniko eta administratibo jakin batzuk betetzera behartuta dauden enpresek eta profesionalak bakarrik egin ditzaketenek, bezeroa izango da gasa hartzeko instalazioak eraikitzeko eta/edo berrikusi eta mantentzeko lanak arauz ezarritako eskakizunak betetzen dituzten hornitzaileei agintzeko arduradun bakarra. Era berean, bezeroaren ardura izango da gasa hartzeko instalazioak kontserbazio-egoera bikainean mantentzea, modu egokian erabiltzea eta indarrean dagoen araudian adierazitako aldizkako ikuskapenak egitea, eta baita hornitutako PGL etxebizitzetara bideratzea ere.

Ondorioz, bezeroak -bakarka eta kasua bada, jabeen erkidegoko kide gisa- eska dakiokkeen kalte edo erreklamazio orotatik kanpo utziko du **Nortegas**, kalte edo erreklamazio horiek bezeroak instalazio hartzaileen, horietara konektatutako gas-aparatuen, ebakuazio-hodien eta PGLren erreklamazioen, erabileraren eta xedearen arloko obligazioak eta betebeharrak ez betetzearen ondorio badira.

3. KONTAGAILUAK

Bezeroak berarekin diren kontagailuak jartzeko eskubidea izango du, eta baita kontagailuak enpresa hornitzaileaz bestelako pertsoneri alokatzekoa ere, sistema horiek indarrean dagoen araudia betetzen badute. Kontsumitzaileak eskubide hori erabiltzen ez badu, **Nortegas**ek aparatua jarriko du eta alokairu gisa kobratuko ditu legez baimendutako tarifak.

Bai **Nortegas**ek eta bai bezeroak kontagailuak egiaztatzeko eska diezaioke administrazio eskudunari. Administrazio eskudunak kontagailu bat egiaztatu ondoren, kontagailu horrek gaizki funtzionatzen duela frogatzen bada, egoki den likidazioa egingo da. Kontagailuaren egiaztapenak eta kasua bada, konponketak, iraun bitartean, **Nortegas**ek gasaren zuzeneko pasabidea jarri ahaliko du zentzuzko denbora tarte baterako, eta adostutako tarte horretan izandako kontsumoak bezeroaren erabileraren arabera likidatuko dira. Egiaztapen-eskubideak eta horri lotutako gastuak egiaztapena eskatu duenak ordainduko ditu; kontrako alderdiari egotzi dakizkiokkeen arrazoiengatik irakurketak okerrak badira, aldiz, kontrako alderdi horrek ordaindu beharko ditu.

4. HASIERA ETA IRAUPENA

PGL horniduraren eta "Nortegas A Punto" eta/edo "Nortegas A Punto Solar" zerbitzuen hasiera-data eta iraupena berdinak izango dira, kontratu honetan jasotako baldintza zehatzetan zehaztutakoak izango direlarik. Kontratua amaitzen denean, urtebeteko tarteetarako luzatuko da, honako kasu hauetan izan ezik: (i) bezeroak salaketa jartzean badu eta kontratua iraungi baino hilabete lehenago jakinarazten badu edo (ii) momentu horretan indarrean dagoen araudiak luzapen hori oztopatzen badu. Edozein arrazoi dela bide hornidura-harremana eteten bada, automatikoki etengo dira zerbitzuak baina ez alderantziz: arrazoiak edozein delarik ere,

zerbitzuen eskaintza salatzen eta eteten bada, horrek ez du salaketa-rik ekarriko eta ez da horregatik hornidura etengo. Horniduraren salaketa berariazkoa izan beharko da.

Aurrekoari kalterik egin gabe, bezeroa "Nortegas A Punto" zerbitzuan bajaran eman nahi bada kontratuaren urtebeteko indarraldia agortu aurretik eta urte horretan zehar

zerbitzuaren barruan datorren Derrigorrezko Aldian Behingo Ikuskapena doan egiteko aukeraren onuradun izan osten, legeriak ikuskapen horretarako ezarritako diru kopurua fakturatuko zaio.

5. ALDAKETAK

Nortegasek hornitutako gasaren presio-mugak eta berotze-ahalmena aldatu ahaliko ditu, indarrean dagoen araudiak hala egitea eskatzen badu edo teknika aldetik egindako aurrerapenak direla-eta gomendagarria bada. Kasu horietan, bezeroak ez du erreklamatzeko edo edonolako kalte-ordaina eskatzeko eskubiderik izango, gas motaren eta bere ezaugarrien aldaketa horiek administrazio eskudunak baimendu baditu.

Bezeroak horniduraren parametroak aldatu ahaliko ditu indarrean dagoen araudiaren arabera. Horren berri eman beharko dio **Nortegasi**, idatziz, haren baldintza zehatzetan eta/edo berezietan aldaketa hori jaso dezan.

6. KONTRATUAREN AMAIERA

4Gas-hornidura amaitutzat eman ahaliko da ondorengo kasu hauetan: (i) alderdi biek hala erabakitzen badute; (ii) kontratua luzatu nahi ez bada edo ezarritako baldintzetan luzatu ezin bada; (iii) edozein momentutan alderdietako batek kontratua salatzen badu, beste alderdiak ordaindu ez duelako edo obligazioak bete ez dituelako, eta (iv) legeriak ezarritako gainerako arrazoiak suertatzen badira.

Arrazoiak edozein dela ere, kontratuaren amaieraren berri eman beharko da, kontratu honen aurrealdean ageri den posta-helbidera idatziz.

7. KONTRATUA LAGATZEA/SUBROGATZEA

Bezeroak kontratua laga ahaliko dio kontratua baldintza berberetan erabiliko duen hirugarren bati, kontratuan jasotako baldintza zehatzak mantenduz eta kontratuaren obligazio eta eskubide guztiak subrogatuz, honako baldintza hauek betetzen badira: (i) bezeroak ordaintzeko egunean baditu eta (ii) **Nortegas**ek lagapena baimentzen badu. Lagapenak fakturatutako azken egunetik aurrera izango ditu ondoreak eta lagapen-hartzailea horniduraren prezioa ordaintzera behartuta egongo da data horretatik aurrera.

Aurreko paragrafoan adierazitako baldintza biak betetzen ez diren egitatezko lagapen/subrogazio kasuetan, bai kontratuaren lagatzailea eta bai lagapen-hartzailea "bezeroa" izango dira Nortegasentzat eta kontratu honetatik eratorritako betebehar eta obligazio guztiak beteko dituzte elkartasunez.

Bestalde, **Nortegas**ek kontratuan duen kokapena transferitu ahaliko du, horrelako kasuetan eska daitezkeen arauko eskakizunak eta eskakizun administratiboak aintzat hartuz eta bezeroari horren berri emanez.

8. PREZIOAK

Bezeroak ordaindu beharreko gas-horniduraren prezioa eta kasua bada, "Nortegas A Punto" eta/edo "Nortegas A Punto Solar" zerbitzuen prezioa baldintza zehatzetan adierazitakoa izango da.

Administrazio eskudunak amaierako kontsumitzaileei petrolio-gas likidotua kanalizazio bidez saltzeko baimendutako tarifak aplikatuko dira, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak. Tarifa horiek argitaratzeari utziz gero, argitaratutako azken prezioa aplikatuko da, alderdiek hornidurarako prezio berri bat negoziatu bitartean. Bi hilabeteko epean ezer adosten ez badute, amaitutzat emango da kontratua.

Baldintza zehatzetan kontrakorik adierazten ez bada, prezio horiek ez dute BEZ barne hartuko, ezta aplikatu daitezkeen beste zerga batzuk ere. Momentu honetan aplikatu daitezkeen zerga BEZ da eta % 21eko tasarekin aplikatzen zaie fakturatutako kontzeptu guztiei. Etorkizunean kontratatutako hornidurari edo zerbitzuen eskaintzari beste zerga batzuk aplikatu behar izanez gero edo gaur egun dauden zergen tasak aldatuz gero, oso-osorik aplikatuko dira ezarritako prezioaren gainean.

Administrazio eskudunak kontratu hau indarrean egon bitartean baldintza zehatzetan adierazitako tarifen eta zenbatekoen aldaketak onesten baditu, aplikatutako prezioei aplikatuko zaizkie automatikoki, egoki denean, eta ez dira aldaketa gisa hartuko, 5. klausulan xedatutakoaren ondoretarako.

Gas-horniduraren prezioaz gain, bezeroak, arauz hala egitea dagokienez, une bakoitzean indarrean dagoen araudian ezarritako kontzeptuak ordaindu beharko ditu, araudian ezarritako prezioan. Honako kontzeptu hauek lirateke, adibidez, mugatu gabe: alta-eskubideak, hargune-eskubideak edo antzekoak... Kasu horietan, fakturara gehituko dira.

9. FAKTURAZIOA ETA KOBRANTZA

Baimendutako beste kontzeptu batzuei kalterik egin gabe, enpresa hornitzaileak une bakoitzean aplikatu daitezkeen prezioa fakturatuko du, baldintza zehatzetan eta 8. klausulan adierazita dagoen bezala.

Fakturatutako zenbatekoak baldintza zehatzetan adierazitako kontzeptuei dagozkienak izango dira. Hala behar denean, gasa hartzeko instalazio

komunaren alokairua eta/edo kontagailuaren alokairua ere sartuko dira.

Nortegasek bi hilean behin aurkeztuko du bezeroari dagokion faktura eta azken horrek 20 egun naturaleko epea izango du baldintza zehatzetan jasotako moduan ordaintzeko, faktura igorri den datatik zenbatzen hasita. Ordainketa egiteko epea igarotzen bada eta ordainketa egin ez bada, enpresa hornitzaileak irauzki den eta ordaindu gabe dagoen zorraren guztizkoa handitu ahaliko du, diruaren legezko interes-tasaren pareko interes-tasari ehuneko bi gehituz lortutako berandutze-interesarekin.

Gainera, enpresa hornitzaileak gas-hornidura eteteko eskubidea izango du, edo kontratua ez ordaindu izanagatik eteteko. Hala egin baino 2 hilabete lehenago, bezeroari jakinarazi beharko dio. **Nortegasek** neurri horietako edozein hartutaere, bezeroa ez da zor guztia eta sortutako interesak ordaintzeko obligaziotik salbuetsita egongo. Era berean, **Nortegasek** zor guztia eta sortutako interesak ordaintzeko eskatu ahaliko du. Hornidura eteten bada, ez da berrezarriko bezeroak zor guztia eta sortutako interesak ordaindu arte. Herri administrazioen kasuan, ordainketa-epenean, berandutze-interesaren eta hornidura etetearen arloan aplikatu daitezkeen xedapenetan ezarritakoa bete beharko da.

Nortegasek ondorengo hauek egin ahaliko ditu: (i) kontratu honetatik eratorritako kobrantzen kudeaketa bere enpresa-taldekoak diren beste sozietate batzuen eta/edo berreskuratze-enpresen esku uztea eta (ii) bezeroarekiko duen kreditua hirugarren bati saltzea.

Kontratu honetan itundutakoaren arabera sortutako fakturak ordaintzera behartuta dagoenak ordainketa-epela igaro aurretik ordaintzen ez baditu, **Nortegasek** zorraren berri eman ahaliko die ondare- eta kreditu-kaudimenari buruzko informazio-fitxategiei, indarrean dagoen legerian jasotako eskakizunak betetz.

Fakturazioan edozein arrazoi dela bide atzerapenak edo akatsak hautematen badira, irakurketa falta barne, edo **Nortegasek** instalazioak eta/edo neurketa eta kontrol ekipamenduen behar ez bezala edo ohiz kanpoko moduan funtzionatzen dutela hautematen badu, egoki diren ordainketa- edo zordunketa-fakturak igorriko dira. Baldintza orokor honetan ezarritakoaren arabera jardun beharko da faktura horien kasuan, bezeroak enpresa hornitzaileari aurkeztu diezazkiokeen erreklamazioei kalterik egin gabe. Enpresa hornitzaileak egindako zordunketa ororen berri emango zaio bezeroari, instalazioaren eta/edo neurketa eta kontrol ekipamenduen behar ez bezalako edo ohiz kanpoko funtzionamenduaren ondorio diren zordunketak barne hartuta.

10. ZIGILUAK

Bezeroak ezingo ditu inolaz ere administrazio-agintaritzak, **Nortegasek** edo funtzio horiek betetzeko baimendutako funtzionario edo profesional orok jarritako zigiluak kendu, ez zuzenean, ezta bitarteko pertsona baten bidez ere.

11. DERRIGORREZKO ALDIZKAKO IKUSKAPENAK/BERRIKUSPENAK

Bezeroaren ardura izango da bere instalazio hartzailearen derrigorrezko aldizkako ikuskapena/berrikuspena egitea. Aurrekoari kalterik egin gabe, aldizkako ikuskapenen kasuan, bezeroak arauz baimendutako instalatzaile baten bitartez egiten ez baditu, **Nortegasek** bezeroaren kontura egingo du haren instalazio hartzailearen derrigorrezko aldizkako ikuskapena, autonomia erkidegoko araudian jasotako epean eta epe hori bukatzen den urte naturalaren baitan. Bezeroak ordaindu beharko du ikuskapen horien kostua, arauz ezarritako moduan. Indarrean dagoen araudian jasotako eragiketangurutzat datza ikuskapena. Horretarako, zerbitzu hori ematen duten langileek **Nortegasek** emandako identifikazio pertsonala izango dute. Ikuskapena egin ostean, ikuskapenaren ziurtagiria egingo da, emaitza ona bada; emaitza txarra bada, berriz, anomalien txostena egingo da. Nolanahi ere, bezeroari emango zaio dokumentu hori. Bezeroaren ardura da instalazioan hautemandako anomaliak zuzentzea, lurperatutako barne-hargunearen, gas- aparatuen eta errektuzako produktuen ebakuazio-hodien kasuan barne. Horretarako, gas-instalatzaile baten zerbitzuak erabili beharko ditu eta instalatzaile horrek anomaliak zuzendu direla erakusten duen frogagiria emango dio bezeroari, enpresa hornitzaileari kopia bat bidali diezaien.

12. ATZERA EGITEKO ESKUBIDEA

Indarrean dagoen araudiaren arabera, bezeroa kontsumitzailea bada, ontratu honetan atzera egiteko eskubidea izango du, distantziara (telefono bidez edo internet bidez) edo enpresa hornitzailearen bulegoetatik kanpo sinatu bada. Atzera egiteko eskubidea erabili ahaliko du hamalau (14) egun naturaleko epean, kontratua sinatu den egunetik zenbatzen hasita. Horretarako, idatzizko adierazpen argia helarazi beharko dio **Nortegasi**, kontratu honen aurrealdean ageri den posta-helbidera. Adierazitako ondoretarako, bezeroak eranskinean ageri den atzera egiteko ereduak erabili ahaliko du.

Bezeroak PGLren hornidura kontratuan atzera egiteko epearen baitan hasteko eskatu badu, atzera egiten duela jakinarazi digun momenturako jada eskaini den zerbitzuari dagokion parte proportzionala ordaindu beharko dio **Nortegasi**.

13. BEZEROAREN ZAKO ARRETA-ZERBITZUA

Kontratu honen inguruko jakinarazpen, zalantza edo informazio-eskaera

orotarako, bezeroa **Nortegasekin** harremanetan jarri ahaliko da 900 902 933 doako telefono-zenbakira deituz, kontratu honen aurrealdean ageri den posta-helbidera idatziz edo gure webgunea kontsultatuz: www.nortegas.es.

14. KONTSUMITZAILEEN ESKUBIDEI BURUZKO INFORMAZIOA

Bezeroak sektoreko araudiak aitortzen dizkion eskubideak ditu eta www.nortegas.es webgunean kontsulta daiteke araudi horren edukia. Gainera, bezeroa kontsumitzailea ere bada, une bakoitzean kontsumitzaileentzat eta erabiltzaileentzat indarrean dagoen araudian jasotako eskubideak ere izango ditu.

15. BEZEROARI EGIN BEHARREKO JAKINARAZPENAK

Enpresa hornitzaileak bezeroari kontratu honen kudeaketaren inguruan ezar jakinarazi nahi izanez gero, kontratu honen aurrealdean adierazitako helbidearen, telefono

zenbakiaren eta/edo helbide elektronikoaren bidez egingo da. Ondore horietarako, bezeroak eguneratuta izan beharko ditu datu horiek eta aldaketaren bat eginez gero, horren berri eman beharko dio enpresa hornitzaileari.

16. APLIKATU DAITEKEEN LEGERIA ETA GATAZKEN EBAZPENA

Kontratu honetan jasotako baldintza orokorretan eta baldintza zehatzetan adostutakoa une bakoitzean indarrean dagoen Espainiako legeriaren pean egongo da.

Azkenik, alderdiak Bilboko epaitegi eta auzitegien eraginpean egongo dira.

17. DATUEN BABESA

Datuaren babesari buruzko informazio-dokumentua gehitu da.

B. PGL HORNIDURAREN BALDINTZA BEREZIAK

1. HORNIDURAREN KALITATEA

Une bakoitzean indarrean dagoen araudian bildutako baldintzak eta kalitate-ezaugarriak errespetatuz gauzatu beharko da gas-hornidura.

2. HORNIDURA ETETEA

Gainera, 9. klausulan adierazitako kasuz gain (ez ordaintzea), honako kasu hauetan eten ahaliko da hornidura:

- Erabiltzaileak bere instalazioa hornidura-kontratuaren ageri ez diren lokaletara edo etxebizitzetara desbideratzen duenean edo hala egitea ahalbidetzen duenean, edo hornitutako gasa hirugarren batzuei birlatzen edo lagatzen dienean, alde aurreko baimenik gabe.
- Instalazioak txarto zainduta edo berrikusi gabe daudenean, 2. klausulan adierazitako baldintzetan.
- Enpresa hornitzaileak baimendu dituen eta nortasun agiria daramaten langileei kontratatutako zerbitzuari eragiten dion etxebizitzan edo lokalean sartzen uzten ez zaienean edo sartzea ezinezkoa denean, ohiko ordutegian, instalazioen aldizkako ikuskapena egiteko, arauz ezarritako epe barruan ikuskapena baimendutako instalatzaile baten bidez egingo dela jakinarazten denean salbu.
- Aldizkako berrikuspena/ikuskapena egin gabe dagoenean.
- Aldizkako ikuskapenaren/berrikuspenaren instalazioaren segurtasuna arriskuan jartzen duten akats larriak daudela egiaztatzen denean. Enpresa hornitzaileak desbideratze klandestinoak daudela egiaztatzen bada, berehalakoa izango da ahaliko ditu eta horren berri emango dio administrazioari.
- Kontratututako zerbitzuari eragiten dion etxebizitzan edo lokalean sartzen uzten ez denean edo sartzea ezinezkoa denean, aparatuen irakurketa egiteko edo instalazioetan ezinbestekoak diren konponketak, handitze-lanak edo berrikuspenak egiteko.
- Ezinbestekoa denean, segurtasun arrazoiak tartean direnean eta indarrean dagoen araudian jasotako gainerako kasuetan. Hornidura eteteak ez du esan nahi kontratua amaituko denik.

3. BESTE ERANTZUKIZUN BATZUK

Nortegasek arauz zehaztutako gaitasun legal, tekniko eta ekonomikoaren baldintzak bete beharko ditu bezeroarentzat.

Nortegasek egindako gomendioei jaramon egin beharko die bezeroak, bere segurtasunerako baitira.

C. "NORTEGAS A PUNTO" ZERBITZUAREN BALDINTZA BEREZIAK

1. DEFINIZIOAK

Gas-instalazio indibiduala: abonatu-giltzaren edo eraikineko giltzaren (kasuaren arabera, hornidura abonatu bakarrarentzat bada ez da eraikineko giltza kontuan hartzen) eta aparatuen konektatzeko giltzen artean (horiek barne hartuta) dauden garraio-bideak eta osagarriak osatzen dute.

Instalazio termikoa: airea girotzeko, berotzeko, hozteko, aireztatze eta etxeko ur beroa ekoizteko instalazio finkoa, pertsonen ongizate termikorako eta higienarako eskakizunak asetzeko dena. Kontratu honen ondoretarako, gas propanoa erregai gisa erabiltzen duten instalazioak

baino ez dira kontuan hartuko.

Berokuntzarako zirkuitu hidraulikoa: gas bidezko galdara batetik abiatuz, galdara barne hartuta, ura zirkuitu horretatik garraiatzen duena da, beroa sortzeko xedez.

Eguzki-instalazio termikoa: kaptazio-sistemak, pilaketa-sistemak, truke-sistemak, zirkuitu hidraulikoak, sistema elektrikoak eta kontrol sistemak osatzen dute.

Etxeko gas-aparatuak: gasa kontsumitzen duten ondorengo aparatu hauek lirateke: laborik gabeko sukalddea, labedun sukalddea, labea, barbakoa, tximinia, hormako erradiadorea, berehalako ur-berogailua, pilaketa bidezko ur-berogailua, galdara indibidual bertikal eta mistoa, galdara indibidual bertikala, lehorgailua, hozkailua eta etxeko ur beroaren pilagailua, erregailurik gabe. Funtzionatu ahal izateko gas propanoa kontsumitu beharko dute guztiak, energia-iturri gisa, eta etxean erabiltzekoak izan beharko dira beren-beregi.

2. ZERBITZUAREN EDUKIA ETA IRISMENA

Ondorengo prestazio hauek barne hartzen ditu zerbitzuak:

1. Urteroko berrikuspen prebentiboa, honako irismen honekin:

- Bezeroaren gasa hartzeko instalazio indibidualaren urteroko berrikuspen prebentiboa egitea eta indarrean dagoen araudiaren arabera (919/2006 Errege Dekretua) egindako lanen ziurtagiria egitea, zerbitzuak iraua bitarteko edozein unetan eta bisita-programaren arabera.

- Bezeroaren instalazio termiko indibidualaren urteroko berrikuspen prebentiboa egitea, instalazio horrek gas propanoa erregai gisa erabiltzen badu. Bezeroaren etxebizitzan dauden eguzki-instalazio termikoaren osagaien berrikuspena ere barne hartzen du, eguzki-instalazio termiko kolektiboa jabeen erkidegoak eta **Nortegasek** sinatutako mantentze prebentiborako kontratuaren babespean badago. Era berean, instalazio termiko indibidualean egindako lanen mantentze-ziurtagiria egitea barne hartzen du. Berrikuspen plan honek indarrean dagoen araudiak (1027/2007 Errege Dekretua IT-3.3) eskatzen dituen mantentze prebentiborako programaren eskakizunak barne hartzen ditu.

2. Bezeroaren instalazio termiko indibidualaren urteroko mantentze-lana, honako irismen honekin:

- Sorgailua: Sorgailuaren gas-zirkuituen eta zirkuitu hidraulikoen estankotasuna egiaztatzea, ikusten diren zatietan, eta erregailua egiaztatzea eta garbitzea, egoki bada.

- Instalazioa: Espantsio-ontzia berrikustea, existitzen bada; zirkuitu hidraulikoaren presioa egokia dela egiaztatzea eta beharrezkoa bada, hura zuzentzea; berokuntza-zirkuituak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzea eta bulkatzeko ponpek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea.

3. Arauzko aldizkako ikuskapena: Bezeroaren gasa hartzeko instalazio indibidualaren arauko aldizkako azterketa, hura beharrezkoa den instalazioetan (919/2006 Errege Dekretuaren arabera, 5 urtean behin egin behar da ikuskapen hau, autonomia erkidego batzuetarako zehaztutako kasu berezietan salbu). Instalazioaren estankotasuna eta hura zein hura kokatuta dagoen lokala arauko zehaztapen teknikoetara egokitzen direla egiaztatzean, kontserbazio-egoera onean dagoela egiaztatzean, galdararen eta "1 Definizioak" atalean aipatutako gainerako etxeko gas-aparatuaren errekontua higienikoa egiaztatzean eta errekontuzako produktuen behar bezalako ebakuazioa egiaztatzean datza, egoki den dokumentazioa eginez, indarrean dagoen araudiak eskatzen duenaren arabera.

4. Laguntza tekniko emateko zerbitzua gasa hartzeko instalazio indibidualean, berokuntzako zirkuitu hidraulikoan (ikus daitezkeen zatietan, galdara barne hartuta) eta etxeko gainerako gas-aparatuak. Gas-instalazio indibidualean izandako gorabeheretan eman beharreko laguntza barne hartzen du, galdara eta etxeko gainerako gas-aparatuak barne hartuta. Gehienez ere abisua jaso eta 3 orduko epean helduko da laguntza eta ez dira bertaraino joatearen gastuak ordaindu beharko. Laneskuaren lehenengo hiru orduak doakoak izango dira, gasa hartzeko instalazio indibidualean, galdaran eta etxeko beste gas-aparatuak izandako gorabeherak konpontzeko piezen eta materialen kostua kanpo utzita. Laneskuaren gainerako orduen kasuan eta ordezkatu behar diren eta bezeroaren instalazioan edo aparatuak txertatuta geratu behar diren pieza eta material guztien kasuan, **Nortegasek** fakturatuko ditu, aurrekontua onartu ondoren, gas-horniduraren fakturan bertan. Kontratu hau ordaintzen duena gas-horniduraren kontratuaren titularrak ez denean, aparte fakturatuko da. Aurrekontua bezeroarentzako kosturik gabe kalkulatu da. Nortegasek sei hilabeteko bermea eskainiko du kontratua amaitzen den datatik aurrera egindako konponketa guztietarako, legez ezarritako epea luzeagoa denean salbu. Bermea bertan behera geldituko da berme-aldian hirugarren batek gas-instalazio indibiduala (galdara eta etxeko beste gas-aparatuak barne) konpontzen edo manipulatzan badu. Bermea legez ezarrita dagoena izango da eta lekualdaketa, laneskuaren, ordezko piezen eta edozein motatako materialen gastuak barne hartuko ditu. Kontratuaren estalduratik kanpo geratuko da 15 urtetik gora dituzten etxeko gas-aparatuak laguntza, eta baita fabrikatzailearen edo hornitzailearen hasierako berme-aldia indarrean dutenentzako edo aurreko konponketa baten berme-aldia indarrean dutenentzako laguntza ere. Kontratutik kanpo geratuko dira berokuntza-zirkuituan egin beharreko presio-probak, ikusten ez diren

zatiak baditu. Konpondu behar izanez gero, aurrekontua egingo da.

5. Aholkularitza: Bezeroari bere gas-instalazio indibidualaren eta instalazio termikoaren erabileraren inguruko aholkularitza eskainiko zaio, instalazio horiek gas propanoarekin edo eguzki-energiaren laguntzarekin funtzionatzen badute, ahalik eta segurtasun eta eraginkortasun handiena eskaintzeko xedez.

3. BARNE HARTZEN EZ DITUEN ZERBITZUAK

Zerbitzuen irismenean berriaz jasota ez dagoen oro kanpo uzteari kalterik egin gabe, argibide gisa zehaztu dira zerbitzuaren prestazioaren baitan sartzen ez diren zerbitzu hauek:

- **Nortegasekoak** ez diren pertsonak egindako ikuskapenak, konponketak edo emandako laguntza eta pertsona horiek eragindako kalteak.

- Kontratu honek babesten dituen elementuak ordezkatu edo hobetzea edo indarrean dagoen araudia aldatu izanaren ondorioz horiek aldatu edo egokitzea.

- Zerbitzu honetan eskatutako ikuskapenen harira edo Nortegasen aldizkako ikuskapenen harira gas-instalazio indibidualean, instalazio termikoan edo eguzki-instalazio termikoan hauteman daitezkeen akatsak zuzentzea, akats horiek hasieratik akastuna zen instalazio baten ondorio direnean eta/edo bezeroak gas-instalazio indibidualean egondako aldaketa handi baten ondorio direnean.

- Edozein motatako instalazioak eta gasaren kontsumorako aparatu guztiak, merkataritza-erabilerarako eta/edo erabilera industrialerako direnak.

- 70 kW-etik gorako potentzia duten instalazio guztiak eta horietara konektatutako aparatu guztiak.

- Kontratu honek babesten dituen elementuen erabilera edo kontserbazio desegokia egitearen ondorio diren kalte pertsonalak edo materialak.

- Kontratu honek babesten dituen elementuen funtzionamendu txarrak edo haien funtzionamendu faltak eragindako kalteak, kalte horiek Nortegasen jarduketan ondorio zuzena direnean salbu.

- Hirugarrenen kontratu honek babesten dituen elementuei eragindako kalteak.

- Iozteek, suteek, ezteak, uholdeek, antzekoek zein egoera katastrofikoek kontratu honek babesten dituen elementuei eragindako kalteak.

4. INSTALAZIOETARAKO SARBIDEA ETA NORTEGASEN ESKUBIDEAK

Nortegas ez da kontratu honen arabera eskaini beharreko zerbitzuak eskaintzera behartuta egongo bezeroak prestazio horren kuotak ordaintzen ez baditu edo **Nortegasek** kontratatu diren zerbitzuek estalitate instalazioetara, aparatuetara edo elementuetara sarbiderik ez badu. Bezeroaren ardura izango da **Nortegasi** horietara guztietara sarbidea ematea, zerbitzua behar bezala eskaintzeko.

Nortegasek kontratua amaitzeko eskubidea izango du ordaintzen ez bada, bezeroak emandako datuak faltsuak badira, bezeroak programatutako edo eskatutako zerbitzuak eskaintzera doazen teknikariei sartzen uzten ez badie edo bezeroak teknikariek haren kontsumorako instalazio edo aparatuak hautemandako akatsak zuzentzeko zerbitzua kontratatzen ez badu eta horretarako epea gainditu bada.

Aipatutako kasuetan, **Nortegasek** kontratua amaitzea erabakitzen badu, bezeroak ez du ordaindu dituen kopuruak kobratzeko eskubiderik izango, kontratua hasi zenean adostutako urtebeteko epea igaro ez bada ere.

Nortegasek, kontratu honen xede diren zerbitzuak eskaintzeko, hirugarren bat kontratatu ahalko du osotasunean edo partzialki, hirugarren horrek beharrezko baimen guztiak baldin baditu.

5. PREZIOA, FAKTURAZIOA ETA ORDAINKETA

Baldintza zehatzen arabera.

6. IRAUPENA ETA AMAIERA

Zerbitzua urtebetez egongo da indarrean, kontratu honen aurrealdean jasotako baldintza zehatzetan adierazitako datatik aurrera. Momentu horretan oraindik gasa hornitzen ez bada, hornidura benetan hasten den momentuan hasiko da indarraldia.

Kontratuaz tazituki luzatuko da urtebeteko tartearako, modu jarraituan, bezeroak **Nortegasi** modu frogagarrian eta gutxienez kontratua edo luzapena bukatu baino hilabete lehenago kontratua beste behin luzatzea nahi ez duela adierazten dionean edo kontratu honen aurrealdean jasotako beste baldintza berezi batzuk adierazten direnean salbu. Kontratuaz tazituki luzatuz gero, hurrengo tartetarako prezioa zehazteko, aurreko urteko azaroaren 30ean izandako urte arteko KPIren balioa aplikatuko zaio azken urteko prezioari. Prezioan edo zerbitzua eskaintzeko baldintzetan hurrengo urterako bestelako aldaketak egonez gero, **Nortegasek** horren berri eman beharko dio bezeroari, momentuko indarraldia bukatu baino hilabete lehenago, eta bezeroak kontratua ez luzatzea erabaki ahalko du.